


Otsailak 11, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

Azken urteetan Euskadiko unibertsitateek eskaintzen dituzten zientzien adarreko graduatan emakume gehiago daude, gizonak baino

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko unibertsitateetan zientzien adarrean matrikulatutako eta graduatutako ikasleei buruzko datuak plazaratu nahi ditu.

2019/2020 ikasturtean (hori baita Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, Unibertsitateko irakaskuntzari buruz argitaratu duen azken datua) 1588 emakume matrikulatu ziren zientzien adarreko graduren bateko edozein kurtsotan Euskadin. Azken urteetan zientzien adarreko graduatan matrikulatzen diren emakumeak gizonak baino gehixeago dira, baina aldea ez da handia.




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta

Ikasturte horretan (2019/2020) 295 emakumek bukatu zuten zientzien adarreko graduren bat Euskadiko unibertsitateetan, ordura arte izandako kopururik altuena. Beraz, zientzien graduatan graduatutako ikasle guztien % 54,0 emakumeak ziren.

2013/2014 ikasturtetik 2019/2020 ikasturtera arte izandako bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu zientzien adarreko graduren bat bukatu dutenen artean emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa dela beti.

Euskadiko unibertsitateetan ikasturte bakoitzean zientzien adarreko graduatan graduatutako gizon eta emakumeen proportzioaren bilakaera




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta

Zientzien adarreko graduatan matrikulatutako eta graduatutako emakumeen arteko proportzioa kalkulatu gero, gizonena baino handixeagoa dela ikus dezakegu, beraz, ondoriozta dezakegu emakumeek zientzien graduak gizonek baino neurri handiagoan aukeratu ez ezik, bukatu ere neurri handiagoan egiten dituztela.

Sailkapen ofizialaren arabera, zientzien adarreko graduak hauek dira: Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra, Bioteknologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Ingurumen Zientziak, Fisika, Geologia, Matematikak eta Kimika. 2019/2020 ikasturtean horietako gehienetan emakume gehiago graduatu ziren, gizonak baino; salbuespenak Fisika eta Geologia graduatan gertatu ziren, kasu horietan gionezko tituludunak emakumezkoak baino gehiago baitziren.


2019/2020 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan zientzien adarreko gradu bakoitza bukatu duten gizon eta emakumeen portzentajea



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta

Edozelan ere, 2019/2020 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan graduatu ziren emakume guztien artean, zientzien adarreko graduren bat bukatu zutenen ehunekoak % 5,0 baino ez zen.

2019/2020 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan graduatu ziren emakumeen banaketa ikasketen adarraren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek kaleratzen duen Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika oinarri hartuta